

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko otsailak 25 • 162. zka.

## Gastronomi elkarteak


Lagun giroa jaki artean

Iturririk iturri: Lorenzo Fernandez ■ Iritzia: Mikel Arroiabe ■ Kirolak: Unai Errasti



# HEZIBIDeko Ikastolaren Aposta Batxilergo eta Heziketa Zikloetan

# ere bai!



ALMEN  
IKASTOLA



SAN FRANTZISKO XABIER  
IKASTOLA



SAN VIATOR  
IKASTOLA



Umezaintza  
IAUR-ESKOLA



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

**Zatoz Informatzera!**



Biteri Etorbidea, 15 behea  
Tel: 943 79 88 75  
20500 ARRASATE





# Zer iruditzen zaizkizu gastronomi elkarteak?



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria


**Lourdes Ajuria**  
(Etxekoandrea)

Ondo, baina emakumeak ere sartzeko ordua dela uste dut. Senarra bazkide da elkarte batean; ni, ordea, afari edo bazkariak ditugunean bakarrik joaten naiz.



**Felipe Arrese**  
(Langilea)

1977an egin nintzen Eguzki Aldeko bazkide, batez ere oso erara harapatzen nuelako eta lagun asko ere bertan zeudelako. Inguru honetan mugitzen gara txikiteoan eta elkarte oso ondo datorkit.



**Juan Luis Jurado**  
(Langilea)

Ondo daudela uste dut jende berria ezagutu eta harremanak izateko aukera ematen baitu. Ez naiz inon bazkide, baina sartuko nintzateke.



**Maite Zubillaga**  
(Langilea)

Ondo, niri mundu hori ez zait gustatzen eta aita bazkide izan arren, ez naiz joaten. Hala eta guztiz sartu nahi duten emakume guztientzat libre izan beharko litzateke.



## e s k u t i t z a



## EN FIN

98ko otsailak 11an argitaratutako Aretxagazeta aurrean izanik haserrea nagusitu da nire barrualdean. 80an jaiotakoa naizenez gero udaletxea eta zuengana zuzentzen naiz hainbat baieztapen kritikatu eta salatzeo asmatan. Aurtengo nire kinta direnekin solasaldia izan ondoren, oso deskonforme azaldu dira jasotako irain eta erasoaldiekin, hau dela eta heuen izenean zuzentzen natzaizue.

Lehenik eta behin esan, santa ageda mutilen asma ez dela makina bat urte atzerago sortutako ohitura hau lehiaketa bihurtzea, ezta gutxiago ere. Juerga eta ohitura hau beste urte batez ospatzea da beraien helburu bakar eta nagusia. Hau horrela izanik ere ez nago batere ados udaletxeak egindako kontuarekin. Dirutza dexente da kintoei atxikitzen zaiena. Nire ustetan ataratako kontu horiek erdiak gezurtatzekoak dira. Herrian sortu diren "kaltetxoak" udaletxeak handitu egin ditu kintoei leporatuz. Hasteko, nork frogatzen da santa ageda mutilek pintadak egin dituztela? Nik dakidanez udaletxeak oraindik ez du "Sherlock Holmes" ikertzailea kontratatu beraz ez dauka inolako frogarik kintoei egin dituztela salatzeo. Oker banago, mesedez norbait zuzen dadila guregana eta kontrakoa fro-

ga dezala. Errazena da errua norbait botatzea eta zeintzuk hobeto kintoak baino. EN FIN! Honekin jarraituz, udalak kintoei emandako eskutitza gaztelaniaz idatzita egotea negargarria da, santa ageda mutilek euskaraz badakite eta.

Kritikekin jarraituz, ez zait batere normala iruditzen kintoen dantza egiteko era ez egokia dela esatea. Herritar bezala diotsuet, santa ageda mutilei dantzan ikasteko gogoia ez zaiela falta izan. Guztiok dakigu pertsonak ez garela berdinak eta dantza egiteko gaitasuna aldatu egiten dela gorputz batetik bestera. Beraz gogoia nagusi denean ez dago zertan kritikatu. Nire aburuz "...azken dantza ea ba txukuna izaten den" baieztapena poltxikoan gordetzeko da, lotsagarria izateaz gain tokiz kanpo dago.

Bukatzeo, beste urte batzuetarako eritzi hauek kontutan izango dituzuelakoan, agurtzen naiz. Aupa 80an jaiotako kintxoak!

**80an jaiotakoak**

**Oharra:**  
Eskutitz honi erantzuna M.J. Aretxagak emango dio.

## Txino Dantza

Pasa den Ihautei igandean, ohizkoa den eta tradizioari jarraipena eman nahian, eguerdiko ordu batean Txino Dantzari hasera eman zitzaion Durana eta Mitarte kaleetan zehar emanaldi hori eskaintzeko asmoz. Esan beharra daukagu benetan zaila izan zitzagula gure helburua burutzea. Alde batetik, kalean zehar ibiltzeko garaian oztopo asko izan genituelako. Jendea kalean pilotzen da eta une batzuetan dantza geratu, txistulariak ilaran eta bultzaka pasatu eta mesedez lekua uzteko eskatu ondoren, erantzun txarrak ere entzun behar izan genituen.

Bestaldekik, Txino Dantzak irten zuen ordu berean, txaranga ere jo eta su zebilen Durana kalean zehar. Haien adamenetik pasatzerakoan txistua entzun ere ez zen egiten. Agian koordinazio kontua besterik ez litzateke izango, baina egitaraua betetzeko orduan gauza hauek kontutan hartu beharko liratekeela uste dugu.

Ordurarte oztopoak eta haserrea gutxi izanik, Herriko plazara iristean, megafoniaren soinuak ez zigun utzi ohizko Fandango eta Arin-Arina behar den moduan dantzatzen.

Oso gaizki sentitu ginen eta esan beharra sentitu genuen. Izan ere, uste dugu gure lanak edo ahaleginak bere errespetua merezi duela.

**Txino Dantzan parte hartu genuenok**

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Iruze, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Bereziabar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzalea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.





# AratuSteak 99

Hotz ikaragarria egin bazuen ere, ez zen inor kikildu mozorroak jasteko orduan. Pailazo, erloju, euro, txirrindulari, astronauta, "zorro"... Betiko mozorroez gain, bitxiak ere ikusi ahal izan genituen: Mitarte kaleko zuhaitzean parakaidista bat, bi fakir Duranan,...



Zabor poltsak oinez Durana kalean, nora ete doaz?

Galduta zirudien zuhaitz gaineko parakaidista xeble honek ere.



Fort-Plaimobil-eko soldaduek lehenengo saria eman zuten Oeste aldera.



16 urtetik beherako txirrindulari hauek Tourra ez, baina lehenengo saria aise eskuratu zuten.



Bai ederto egin zutela dantzan aurtengo neska-mutiek.

**IRIARTE**

Umeen  
denda



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongariak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56



**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tfnoa: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
*Lyonel  
Arquero*

Dekorazioa:  
*Soraya  
Arquero*





Benetako iltzeak? Benetako sugearen itxura bai, baina...

Elvis  
ez ei  
da  
orain-  
dik hil,  
zenbat  
daude  
baina?



Bonnie-M taldearen zaleek izugarri animatu zituzten kaleak, baita 2. saria eraman ere.



Aratusteetan ere lanean basotik jeitsitako hauek. 16 urtetik beherakoen artean 2. saria jaso zuten.



Zerga-  
tik ete  
zeuden  
hain  
pozik  
paila-  
zo  
hauek?



Martizenean ere ondo pasatzeko aukera izan zuten haur eta gaztetxoek.



**LASAGABASTER-en**  
**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



## Adingabeentzat harrera familiak

Martxoan jarriko du martxan kanpaina Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzak datorren martxorako sensibilizazio eta informazio kanpaina bat prestatu du "Adingabeen familia-harrera" programa ezagutarazteko. Kanpaina honen berri emateko pasa den ostegunean, Arrasaten, Xabier Urmeneta Foru Aldundiko Gizarte teknikariaren hitzaldia izan zen.

### Adopziorik ez

Kanpaina honek arazoak dituzten familietan bizi diren haurrei lagundu nahi die, bizimodu egonkorrik ez duten haur hauei beste familia batzuetan aldi baterako harrera eskainiaz, beraien familia biologikoaren egoera normaltzen deanean haiengana bueltatu ahal izateko. Aspaldian dabilta programa honekin lanean, baina Xabier Urmenetaren esanetan "oraindik oso jende gutxik ezagutzen du eta haxe da gure helburua; batetik herriar guztiei zer den harrera familia bat ezagutaraztea, ez baita inolaz ere adopzioa, eta bestetik ume hau-

entzat familiak lortzea".

Gaur egun 113 ume daude Gipuzkoan harrera familietan, horietatik %80 bi urte baino gehiago egongo da familia horretan eta %20 urte bete edo urte eta erdi inguru. Ume horien guraso biologikoen %50 ados egon ohi da euren haurra beste familia batekin uzteko, beste %50, berriz, ez, eta orduan epailearen aginduz eramaten dira.

### Esperientzia positiboak

Etxean bi ume hartu dituen bikote bat ere izan zen hitzaldian. Beraien esanetan momentu gogorak pasa badituzte ere, asko sufritutako umeak baitira, izugarri gozatzten da poliki-poliki aurreratzen doazela ikusita. Batzutan guraso biologikoeekin ere sortzen dira arazoak, batez ere beren borondatearen kontra kendu badizkiete haurrak, baina horrelakoe-tan Foru Aldundiak eskuartzen du umeak ez dezan gehiago sukri.

Kanpaina honekin informazioa zabaldu nahi da eta horretarako telefono bat ere jarriko da herritarren zerbitzura, 900 71 32 56a.



Adingabeentzat familiak aurkitu nahi dira

## Ez-ohiko osoko bilkura udaletxean

Pasa den astelehenean, hilak 15, ez-ohiko osoko bilkura ospatu zen udaletxean. Bertan gai bakarra izan zuten eztabaidagai, liburutegiko laguntzaile postuaren eskakizunen aldaketa. Bost minutu eskas iraun zuen osoko bilkuran hiru aldaketa onartu ziren: oinarrietan jubilatzeke 10 urte baino gutxiago falta zaien pertsonak kanpoan geratuko direla zehaztea, euskararen eskakizunaren dekretu aldaketa, hala eta guztiz euskara eskakizunak 3. HE izaten jarraituko du, eta azkenik merituengatik lortzen den puntuaketa erdira jeitsi zen.

## Batxilergoak eta hezikleta zikloak Hezibiden

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat matrikulazio epea amaiturik, aurrerantzean Arrasateko informazio bulegoan Hezibideko partaide diren Almen, San Viator, Eteo eta Mondragón Eskola Politeknikoak dituzten eskaintza zabalari buruzko informazioa emango da. Informazio bulego honen egoitza, Arrasaten Biteri etorbidea, 15ean dago, Zaldibar frontoiaren ondoan, edo bestalde, 943 79 88 75 telefonora asteleheneetik ostiralera goizeko 10etatik ordu batetara eta arratsaldeko 3etatik 7etara ere dei daiteke.



*Lubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABAETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

ARETXABAETA  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABAETA



## Badator 11. Korrika!!

Korrika, AEK-k antolatu eta Euskal Herri osoan zehar burutzen den euskararen aldeko ekitaldia da eta gau eskola eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da bere helburua.

AEK helduen euskalduntze eta alfabetatzeaz arduratzen den kultur elkarte da. Euskal Herrian 200 ikasleku ditu, bertan 984 irakasle eta ikasturte bakoitzean 32.000 matrikula inguru biltzen dituelarik.

Aurtengoa 11. ekitaldia izango da, martxoaren 19an Iruñean hasi eta 28an Donostian bukatuko delarik. Aretxabaletatik martxoaren 24tik 25erako goizaldeko 4etan pasako da, dena dela oraindik ez gehiegi larritu aldaketak jasan baititzake honnek.

Ohiturari jarraituz korrika etorri aurretik korrika kulturala antolatu da aurten ere eta otsailaren 13tik martxoaren 13ra bitartean hainbat

ekintza izango dira Euskal Herriko herri gehienetan. Gure herrian "laburmetraien gau" egingo da martxoaren 5ean gaueko 10,30etan, Jon Andueza arrasatearraren Bernar eta Laugarren galeriatik eta Txotx laburmetraiak eskeiniko dira udaletxe zaharrean.



## Kolektore lanak poliki baina aurrera

Uste baino luzeago egiten ari badira ere kolektore lanak poliki-poliki aurrera doaz. Datorren aste inguruan Araba Ibilbideko azkenengo zatiari hasiera emateko asmoa dago, Anduaga tabernatik gorantz. Hori dela eta, Baintxe, Mendiola eta Arkarazora ezingo da Araba Ibilbidetik sartu, bai ordea Copreciko bidetik. Hegoaldeko sarreratik datozen kotxeak, berriz, Markoletik bueltan sartu ahal izango dira herrian, Markoleko bi bidegurutzeak zabalik egongo baitira.

Udaletxearen esanetan zati bakoitza bukatu orduko asfaltatzeko asmoa egon arren lanok atzeratu egin dira. Aste honetan, ordea, zati batzuk konpontzeari ekin diote, ea egindako guztia txukunduta uzten duten.

## Gipuzkoako urtegiak gainezka

Horresbeste euri bota ondoren ez da arraroa Gipuzkoako sei urtegietatik bost gainezka egotea. Otsailaren 22an Ur Kortsozioak emandako datuen arabera, Urkulu, Aixola, Barrendiola, Lareo eta Ibai-Eder %100ean beteta aurkitzen dira eta Arriaran, berriz, % 95,72an. Horien artean, Urkulu eta Ibai-Eder dira kapazitate haundiena dutenak, Urkuluk 10 Hm<sup>3</sup> eta Ibai-Ederrek, berriz, 11,3 Hm<sup>3</sup>. Era berean, bi urtegi hauek dira populazio haundiena hornitzen dutenak, Urkuluk 69.708 biztanle eta Ibai-Ederrek, berriz, 60.628 biztanle.

Ur kontsorzioko arduradunek aurreratu dutenez, bestalde, hurrengo bi urteetan ez da inolako arazorik egongo eta lehorteei dagokienez, egoera asko aldatu beharko litzateke



**MartiW**  
RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKLU**  
URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

BEIRALAN



**KRISTALDEGIA**

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

Herriko plaza, 8 behea  
943 79 81 78 ARETXABALETA



# Lorenzo Fernández

## PSE-EEko zinegotzia

PSOE taldetik alkatetzara Iñaki Pierrugues aurkeztu bazen ere partiduan beste betebeharrak hartu eta aldegin beharra izan zuen. Hori dela eta, Lorenzo geratu zen PSOE-ko udaletxean zituen zerregin guztien kargu. Bere esanetan, ordea, ez da inoiz bakarrik sentitu uneoro kontaktuan egon baitira.

**- Zein izan da zure lana udaletxean?**

- Lan ezberdinak burutu ditut, kontsumo eta ingurugiroaz gain kirolak eramatea ere tokatu baitzait, nahiz eta ez izan titularra. Hasieran lan haundia izan arren, orain nahiko lasai daramat.

**- Zerk bultzatu zintuen zinegotzi gisa aurkezteara?**


- Nire ustetan herritar guztiek parte hartu beharko lukete noizpait udaletxean eta horrek bultzatu ninduen. Erreza da zinegotzi eta kargu publikoetan daudenak kritikatzeko, horregatik kritika horiek egiten dituztenak ere udaletxetik pasatzea komeni da zer den ikus dezaten, orokorrean denok herriaren alde lan egiten baitugu.

**- Egin nahi zenuen guztia bete al da?**

- PSOE-ko aurkeztutako programan bada aurrera eramanez den zerbait, ez ordea gogorik izan ez dugulako. Euskaraz ulertzen duten guztientzat, Aretxagazeta dagoen bezala, guk gaztelaraz hitzegiten duten beste %50arentzat gaztelarazko aldizkari bat atera nahi genuen. Pena ematen dit lortu ez izanak, gutxienez Aretxagazetan gaztelarazko berritxo batzuk agertzerik balego...

**- Egin edo lortu duzun zerk eman dizu poz haundiena?**

- Iaz dantza eta gastronomi erre-gionalen bigarren ekitaldia ospatu



**“Herritar guztiek parte hartu beharko lukete noizpait udaletxean”**

zen eta Aretxabaletarentzat oso garrantzitsua izan dela uste dut. Hemen jaiotako eta kanpokoen artean plaza bete-bete egiten da eta jendeak ondo pasatzen duela ikusteak asko poztzen nau. Gipuzkoan, Donostian eta hemen bakarrik egiten da. Gero ere jarraipena izatea gustatuko litzaidake.

**- Nola baloratuko zenituzke lau urte hauek?**

- Oso positiboak izan direla uste dut. Herrian burutu edo lortu diren gauzengatik baino gehiago gobernu batzordean parte hartu dugun lagun

guztion jokaeragatik. Partidu ezberdinetakoak izan arren oso ondo konpondu gara eta hori herriaren onerako izan da.

**- Orokorrean herriaren alde egin da legealdi honetan?**

- Udaletxean sartzen diren guztiak herriari laguntzeko egiten dutela uste dut eta kasu honetan ere Aretxabaletaren interesak egon dira lehenengo. Herri haundietan politika gehiago nahasten da baina gurea bezalakoan ez. Egia esateko lau urte hauetan partiduak inoiz ez dit esan zer egin dezakedan eta zer ez, dena nire aburuz aterada.

**- Batzutan ez al zara bakarrik sentitu?**

- Ez, inola ere ez, beti oso babestua sentitu naiz. Nire ki-deak ez du hemen egotetik izan baina uneoro kontaktuan egon gara eta gauza asko erakutsi dizkit.

**- Hurrengo hauteskundeetan zer gerta daiteke gure herrian?**

- Azkenengo autonomi hauteskundeetara begiratuz gero emaitzak aldatu egin daitezkeela uste dut. Hemen ez da inor nagusi aterako, beraz, elkarketak egin beharko dira eta jokua baldintzak betez gero behintzat gure partidua edozertan parte hartzeko gertu egongo da.

**- Hurrengo legealdian aurkezteko asmorik baduzu?**

- Lehen esan bezala udaletxean jende guztiak parte hartu beharko lukeela uste dut eta behin egonda nik nire bete dut. Partiduak jarraitzeko eskatuz gero, ordea, pentsatu egin beharko nuke.

**- Kargu publikoak beti oso kritikatuak izaten dira. Ez al zara damutu lau urte hauetan?**

- Ez, kritikak gainera batzutan onak izaten dira. Kritikak positiboak direnean onartu egin behar dira. Okerragoa litzateke kritikarik ez jasotea.



# Aretxabaleta Okindegia

Loramendi, 6 ☎ 943 771719 • Mitarte, 1 ☎ 943 770081

**Karapaixoa**

**Udaberriko**

**oparitxoa**



**Oraindik zure besoetarakoari karapaixoa oparitzeko zaudela?**

**Zatoz Aretxabaleta Okindegira!**

**Karapaixo goxo-goxoak aurkituko dituzu!**





## Ez dagoen lekutik ezin ezer atera

Norbait bukatzera doan mende hau definitzen saiatu zen, eta “guda haundien mendea” bezala definitu zuen. Beste norbaitek “kutsaduraren mendea” zela esanaz aurre egin nahi izan zion eta azkenengo batek “plastikoaren mendea” deitu zion hiltzear daukagun mende honi. Nik “telebistaren mendea” deitu nahi nioke, zeren eta gure bizitzaren eguneroko zati bihurtu baitzaigu, loarekin, janarekin eta lanarekin batera.

Dena dela, gaur egun telebistan ikus ditzakegun saio eta ikuskizunen maila ez da oso ona eta gainera txarrera doa etengabe. Izan ere telebista kate pribatuen agerpenak sekulako kaltea egin die gainerantzekoei, “telezaborra” berehala zabaldu baita denetan eta okerragoa dena, jendeak telezabor hori asimilatu duenez, hori eskatzen hasia da.

Gure gizarteak dituen gaitz asko ere telebistaren ondorio dira, ikusi besterik ez dago nola haunditu diren anorexia, bakardade, depresio eta antzerako kasuak, eta noski hauekin batera *burgerrak* eta *merchandising* barruko gainerantzeko produktuak ere bai.

Telebista kateak aztertzen hasita, zaila da onena aukeratzea eta era berean ez da erreza txarrena zein den esatea. Nik ETB-1 katearen alde egingo nuke apostu txarre-

na aukeratu behar banu. Benetan ematen dit pena euskarazko kate bakarra hain patetikoa dela ikusteak. Goenkale, futbola eta pelota baino ez du eskaintzen, folklorismo hutsa, eta hauek gainera mila aldiz errepikatuta. Nola ez du ba 24 orduko emisio jarraia lortuko horrela? Nork pentsa lezake Fernando Amezketarraren marrazki sailak 14 kapitulo baino ez zituela?

Orain telebista berria sortu dugu Aretxabaletan, bai, “Atxabalta telebista” du izena. *Arrasatearrek badute beren telebista eta atxabaltarrak ezin gara gutxiago izan*. Tristea da tabernazulotik ateratako komentario baten kulpaz milioiak gastatu izana horrelako proiektu burugabe batean. Atxabaltak behar garrantzitsuagorik izango ez balu bezala.

Telebista honekin zer lortu nahi da baina... Aspaldian ikusi al duzue Arrasate telebistaren emisiorik? Bi ordutako emisio tristea daukate eta hori informatiboa hiru aldiz errepikatzen dutelako. Atxabalta dexente txikiagoa izanik, nondik atera behar dute materiala ganorazko zerbait egiteko? Eta ganorazkoa ez bada merezi al du diru guzti hori gastatzeak?

Nik neuk behintzat ez dut Atxabaltako telebistarik nahi.

Mikel Arroiabe

**“Telebista kateak aztertzen hasita, zaila da onena aukeratzea eta era berean ez da erreza txarrena zein den esatea”**

**ERREKABARREN**  
MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43



# Lagun giroko elkarteak

Euskal Herrian oso zabalduta dago elkarte gastronomikoetako bizitza. Lagun giroa eta sukaldea elkartzen dira bertan eta, sarritan, kanpotarrak harrituta gertzen dira bertako funtzionamendu eta giroaz.

Txikito batzuk hartzeaz gain kuadrilako afaritxoak, familia arteko bazkariak edo mus partida bat lasai lasai jokatzeko aukera ematen dute elkarte hauek.

Aretxabaletan, gaur egun zazpi gastronomi elkarte daude, Muru Alde zaharrena izanik, 1953an sortua,

eta Urkulu Batzokia gazteena, 1996an. Denek funtzionamendu berdintsua badute ere, xehetasunak baitetik bestera aldatu egiten dira hileko kuota dela, politika kutsua dela, emakumeak bazkide hartzeko kontua dela...

Elkarte gastronomikoen artean harreman sendoagoak egon diren garaiak ezagutu badituzte ere, gaur egun oraindik zerbait mantendu nahi da. Hori dela eta, aste bukaera honetan elkarte arteko mus txapelketa jokatu zen Urkulu Batzoki elkartearen, bertan irabazleak Hibai Gaineko Modesto eta Landa suertatu ziren.



Elkartearteko mus txapelketa

## SAN KRISTOBAL ELKARTEA

**Auzo batean kokatutako elkarte bakarra da**



San Kristobal elkarte, Aretxabaletako auzo batean kokatutako elkarte bakarra da, Larriño auzoan hain zuzen. 1981ean sortua, abatetxearen zati bat erosi eta bertan kokatuta dago, abatetxea, berriz, eliza eta elkartearen artean geratu zen.

Sortzaileak 40 lagun izan ziren, inguruko auzoetakoak, kalean bizi ziren auzotarrak eta arrasatear bat ere tartean izanik. Momentu honetan 56 bazkide ditu, baita emakume bat ere

beraien artean. Sartzeko eskaera iaz egin zuen emakume honek eta bozketan baietza atera ondoren onartu egin zen. Orokorrean jende gaztea dago bertan eta norbait elkarte batean sartzeko gogoz badago hemen aurkituko du lekua.

Batzordea, zortzi pertsonen osatzen dute eta erdiak urtero aldatzen dira. Momentu honetan Jose Luis Altuna da lehendakaria. Elkarte festak, berriz, uztailan ospatzen dute, San Kristobal egunean hain zuzen.

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia

**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA



**ANDRA  
MARI**

*Aholkularitza*

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26



## URATZ ALDE ELKARTEA

**Uretza ematen zuen iturri baten inguruan kokatuta egoteagatik jarri zioten Urtaz Alde izena**

Badira 50 urte inguru edo hor nonbait elkarte sortu zela eta inork galdetuko balu izen honen zergatia, lehenengo goitza uretz iturri baten inguruan kokatuta egoteagatik jarri ziotela Urtaz Alde esan daiteke. 12 izan ziren sortzaileak gaur egun, ordea, baditu 150 bazkide eta jubilatua diren beste 30 ohorezko bazkide.

Batzordea 13 lagunek osatzen dute: lehendakari, lehendakari orde, diruzain, idazkari, festen arduradun... Momentuz Iñaki Arana bada ere lehendakaria, datorren larunbatean, hilak 27, izango da asanblada eta bertan jende berria sartuko da.

Iñakiren esanetan "lehen harreman haundiagoa zegoen elkarteon artean, erosketak ere batera egiten baigenituen. Orain gutxituta ba-

daude ere, zerbait mantentzen da, elkartearteko mus txapelketa hau esaterako".

San Jose egunean elkar-teko jai handia ospatzeaz gain, urtean zehar mus eta eskoba txapelketak ere egin izan dituzte.



## MURU ALDE ELKARTEA

**Lehenago estatutuen arabera emakumeak elkartera sartu ere ezin zitezkeen egin**

1953an sortua, Aretxabaletako zaharrena da. 40 lagun izan ziren hasieran eta gaur egun 148 bazkide eta 12 jubilatua daude, 160 guztira, aurten 6 berri sartu direlarik. Lehenago estatutuen arabera emakumeak elkartera sartu ere ezin zitezkeen egin, San Inazio bezperan, Andramari bezperan eta Eguberri bezperan bakarrik onartzen ziren. Gaur egun, arauak ez dira hain zorrotzak, baina oraindik sukaldaria sartzeari debekatuta dute; beraz, Muru Aldera doan emakumeak badaki mahaian eseri eta jan besterik ez duela egin behar.

"San Inazio eguna oso jai handia da guretzat. Lehen tiro plato txapelketa egiten genuen Almenen eta trikitilariak ere egoten ziren. Orain bolo txapelketa bakarrik mantentzen da, baina bazkideontzat oraindik oso egun handia da" dio Angel Mari Etxabe lehendakariak. Oraindik oso egun gutxi pasa dira kargua hartu zuenetik eta Migel Igartua lehendakari zaharra bertako kontu eta sekretuak erakusten ari zaio. Bat-

ztordea 12 lagunek osotuta dago bi urteroko aldatzen dena.

Bizitza handiko elkarte da, hainbat ekintza antolatzen baitira.

## URBALTZ ELKARTEA

**"Politika inguruan mugitzen garenon artean gauza gehiago uzten dira pasatzen"**

Urbaltz elkarte gastronomia izateaz gain, politikoa ere bada eta hori atetik sartu orduko nabari da, aurrez aurre ikusiko duzu Telesforo Monzon eta Argalaren argazkiak eta gaiarekin lotutako hainbat liburu,...

50 bazkide artean sortu bazuten ere, gaur egun kopuru hori bikoiztu egin da, 103 izatera iritsi direlarik. Momentu honetan gazteak dira nagusi elkartearen eta emakumeek ere ahots, eskubide eta botu ahalmen berberak dituzte. "Ez dago kopuru finkoa jarrita bazkideak hartzeko baina beti kontutan izan behar dugu tokia ez dela oso handia.



Aste bukaeretan jende asko egoten da afari edo bazkariak egiten eta zeresanik ez jai egun haundietan" dio Jesus Agirre lehendakariak.

Batzordea zortzi lagunez osatuta dago eta bi urtetik bi urtera erdiak aldatu egiten dira. Jesusen esanetan lehendakariaren lana sarritan ez da oso atsegina, denen gustokoak ez diren erabakiak hartu beharra egoten baita.

"Elkarte gastronomiko soiletan seriotasun haundiagoa dagoela iruditzen zait, arauak zorrotasun haundiagoz betearazten direla. Politika inguruan mugitzen garenon artean gauza gehiago uzten dira pasatzen".

Ordenagailua ere jarrita daukate kontuak eramateko, baina oraindik bazkide guztiak ez dira moldatzen eta txartela idatziz betetzen jarraitzen dute.


Urbaltz elkarte eguna, berriz, irailaren 27an ospatzen da, Gudari Egunean hain zuzen.



## URKULU BATZOKI ELKARTEA

**“Urtean ateratako dirutik %0,7 ONG bati ematea erabaki genuen”**

Elkarte gazteena da, ofizialki, estatutuekin, 1996an jaio baitzen. 40 lagunen artean sortu zuten eta momentu honetan 44 bazkide daude EAJ-ko afiliatu eta ez afiliatuen artean. Emakumeak ere badituzte bazkide artean, baita batzordean sartuta ere. “Momentu honetan ez zaigu jende gehiago sartzerik interesa-



## EGUZKI ALDE ELKARTEA

**Eguzki Aldek antolatutako ekintzen artean garrantzitsuena argazki rally-a da**

Iaz 25 urte bete zituen elkarte honek 101 bazkide ditu, jubilatuek zenbatu gabe. San Blas egunean elkarteke eguna ospatzearekin batera, bederatzi lagunez osatutako batzordea ere aldatzen da eta aurten Luis Idigoras izendatu dute lehendakari. Momentuz emakumeak ezin dira bazkide izan baina sukaldean sartzeko eskubidea badute, Luisek dioenez, “estatutuetan ez da agertzen emakumeak ez onartzeari buruzko ezer baina bazkideei egin zitzaizen azkenengo galdeketa ezetza atera zen”.

Eguzki Aldek antolatutako ekintzen artean garrantzitsuena argazki rally-a da. Iaz, tradizional bihurtuta zegoen txapelketa hau, berreskuratu nahi izan zuten baina eguraldiak lagundu ez eta jende gutxi aurkezteagatik azkenean atzera bota zen.

Bazkideen adina gora doala ikusita aurten 25-30 urte inguruko bost gazte hartu dituzte elkarteke bizitza animatu nahian. “Bazkideen %85, 45 urtetik gorakoa da eta hori izugarri nabari da elkarteke giroan, gaueko 11etatik aurrera, esaterako, oso jende gutxi aurki daiteke elkarteke. Orokorrean mugimendu haundiegirik ez duen elkarte da”.

tzen, baja bat egon beharko litzateke horretarako. 50 bazkide baino gehiago ez izatea erabaki genuen bere garaian eta hori bete nahi dugu” dio Jose Migel Uribarren lehendakariak.

Afiliatuak ez diren bazkideak izatean, batzoki elkartari beste

izen bat jartzea pentsatu zen eta Aretxabaletarekin lotuta zerbait jarri nahirik, Urkulu izatea erabaki zuten.

Batzordea sei pertsonak osatzen dute; lehendakariak, lehendakari ordeak, idazkariak eta 3 bokalek eta bi urtetik bi urtera erdia aldatu egiten da.

Antolatzen dituzten ekintzen artean, Andramaixa, Aberri Eguna eta Eguberritan abesbatzakoei luntxa ematen zaie eta erakusketak antolatzen ere hasita daude, margo erakusketak esaterako. “Urtean ateratako dirutik %0,7 ONG bati ematea erabaki genuen eta geroztik halaxe egiten dugu” dio Jose Migelek.



## HIBAI GAIN ELKARTEA

**Gaur egun dituen 87**

**bazkideen artean gehienak nahiko nagusiak dira**

Zortzi lagun artean 1980an sortu zuten elkarte. Erreka gainean kokatuta dagoenez Hibai Gain baino izen hoberik ez zutela aurkituko, eta halaxe jarri zioten.

Gaur egun dituen 87 bazkideen artean gehienak nahiko nagusiak direla esan daiteke, 50 urtetik gorakoak baitira. Emakumeek ez dute bazkide gisa sartzerik, ezta sukaldean ere. Bertako sortzailea izandako Angel Sagarribay lehendakariak dioenez “gizon asko sukaldean ez dira ondo moldatzen eta behar bada aldatu beharreko araua da baina gehientsuena oraindik aurka azaltzen da”.

Zortzi pertsonak osatutako batzordearen erdia urtero aldatzen da, honela bazkide bakoitzak bi urte egiten dituelarik. Aldaketa hau urtarrilak 20an, San Sebastian egunean burutzen dute orduantxe ospatzen baita elkarteke eguna.

Elkarte barruan antolatzen diren ekintzen artean mus txapelketa dago, sarri jokatzeko dutela demonstratu dute gainera, astebukaera honetako elkartearteko mus txapelketan beraiek izan baitira garaileak.



# Bailarako txirrindulariek ekin diote aurtengo denboraldiari

Aurtengo taldeek Fagor, JMA eta Arrasate Kirolak izango dituzte babesle



Dorletako Ama Txirrindulari eskolako txirrindularien aurkezpena

Otsailaren 13an Dorletako Amari lore eskaintza egin ondoren, Gure Ametsa jatetxean izan zuten urteroko zita Dorletako Ama Txirrindulari Eskolakoek. Bertan aurtengo hiru taldeen eta

euren babesleen aurkezpena egin zen: jubenilak (Fagor), kadeteak (JMA), eta azkenik, infantilak (Arrasate kirolak).

Guztira 26 txirrindulari arituko dira aurtengo denboraldian.



**Iker Bernal (16 urte)**  
Dorletako Ama Eskolako txirrindularia

## - Noiz hasiko duzu aurtengo denboraldia?

Martxoaren 7an hasiko dugu jubenilok denboraldia eta irailean bukatu. Gipuzkoa mailan korrituko dugu eta astebukaerero karrerak izango ditugu, batzutan bi ere bai.

## - Zein helburu duzu aurtengo urterako?

Jubeniletan lehen urtea denez, nagusiagoekin korritu beharko dugu eta zaila izango da aurrean ibiltzea. Karrerak bukatzea eta taldekideei laguntzea izango da nire aurtengo helburua.

# UDA-Mondra derbia domekan

Datorren domekan UDA eta Mondraren arteko derbiaz gozatzeko aukera izango da arratsaldeko 4,30etan Ibarra futbol zelaian. Etxeko taldea indartsu eta irabazteko gogoz aterako da zelaira, Iñaki Ceciaga entrenatzaileak adierazi bezala. "Garbi dago irabaztea dela gure helburua. Taldea ilusio haundiz ari da, eta azken partida galdu egin bagenuen ere, orokorrean, emaitza oso onak lortu di-

tugu, eta klasifikazioan nabarmen egin dugu gorantz". Azken partidako emaitza istripuxo bat izan zela eta, hau ahaztu eta aurrera egin behar dutela esan zien Ceciagak jokalariei asteleheneko entrenamenduan. "Bestalde, Mondra ere ilusio haundiz etorriko dela badaki, azken partida 6-0 irabazi ondoren".

Ceciaga jokalaria titularretan aldaketak egin beharrean izango da, Armendariz bost txarteekin baitago

eta Jonan kanporatu egin baitzuten aurreko partidari. Honez gain, lau jokalaria lesionaturik daude. Beraz, aldaketa dexente egin beharko ditu.

Bukatzeko, derbietan "joko ona baino gehiago emozioa nagusitzen dela adierazi du UDAko entrenatzaileak". Domekako norgehiagokan bai jokoa eta bai emozioa ikustea espero dugu. Joateko asmoa duenarentzat, jakin Club-eko egun erdia izango dela.

**IBARRA**

Tabakoa eta ikasmateriala

**ESTANKOA**

**REGI ONDO**

**optika**

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

*Okindegia - Gozolegia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina



# Unai Errasti

## Afizionatu mailan pilotari

Putzu haundiaren beste aldetik etorri berri harripatu dugu Unai Errasti 25 urteko pilotaria. Astebetean San Frantziskon izan da, beste hemengo lagun batzuekin batera pilota erakusketa batean.

Bertako esperientzia kontatu digu, eta bide batez, pilotaren inguruan dituen asmoak ezagutzeko aukera ere izan dugu.

### • Zer nola joan zarete San Frantzisko aldera?


Iaz Euskadiko txapelketan finalera heldu ginen eta bigarren gelditu ginen. Finalera heldu ginenez, joateko aukera eskaini ziguten. Bertako pilota federazioaren esku dago antolakuntza.

### • Zer moduzko esperientzia izan da Ameriketakoa?

Esperientzia zoragarria. Jendea oso ondo portatu da gurekin eta pilota erakusketetan jaso dugun erantzuna ere apartekoa izan da. Basque Cultural Centre deritzon lekuan egon gara eta frontoia bertan zegoen. Hemengoa baino pilota maila baxuagoa izan arren, afizioa dagoela ikusten da. Jendeak, esaterako, lau orduko bidaiak egiten ditu pilota partiduak ikusteko. Merezi izan du esperientziak.

### • Bidaia alde batera utzita, Gipuzkoako eskuz binakako txapelketa irabazi ondoren, lorpen honek zer suposatu du?

Txapelketan zehar oso ondo aurkitu dut neure burua eta txapelketa irabazteak konfidantza eman dit. Partiduetan lasaiago eta ziu-rrago nago eta indartsuago aurkitzen naiz. Gutxi entrenatzen ari naizen arren, partiduetako emaitzak



## “Zaila da afizionatuetatik profesionaletara saltoa egitea”

nahiko onak dira.

### • Beste zein txapelketa duzue aurrez-aurre?

Iaz baino txapelketa gutxiago jokatuko dugu aurten. Momentu honetan hiru txapelketa jokatzen ari gara anaia eta biok, Open de Vitoria, Euskadiko txapelketa eta Deba Harroa.

### • Nola doaz txapelketak?

Euskadiko txapelketan partidu bat jokatu dugu frantsesen aurka eta irabazi egin dugu. Barakaldokin berdinduta lehen postuan goaz.

Deba harroan bat ezik beste partidu guztiak irabazi ditugu. Open de Vitorian, berriz, partidu bat izan dugu eta dagoneko klasifikatuta gaude. Hurrengo partidua irabaziz gero semifinaletarako klasifikatuko gara.

### • Beti anaiaz jokatzen duzu? Nola moldatzen zarete?

Bai, normalean anaiaz jolastu izan dut. Ondo moldatzen gara biok, gure hase-reak izaten ditugun arren. Nik aurrean jokatzen dut, Ibonek, berriz, atzelari lanak egiten ditu.

### • Nola ikusten duzu profesionaletara saltoa?

Gu ez gaude profesionaletara begira. Profesionala izateko errioxarra edo nafarra izan behar duzu. Gipuzkoarra izanda oso ona zarela erakutsi behar duzu. Bi enpresa daude eta eurak aukeraten dituzte pilotariak. Guk ez daukagu igotzeko esperantza haundirik, momentuz afizionatuetan jarraituko dugu eta zeozerk irteten badu ikusiko da. Kirola egiten jarraitu eta txapelketak irabaztea da gure asmoa. Uda aldera, berriz, txapelketa ugari jolasten direnez, diru pixkat atera daiteke bertatik.

### • Telebista eta komunikabideetan pilota asko sartu da azkenaldian, zer balorazio egingo zenuke honen inguruan?

Pilota partidu asko botatzen ari dira azkenaldian, baina partidu asko kaxkarrak dira. Maila batean behintzat espektakulua galdu dela esango nuke.

### • Zein da zure pilotari gustokoena?

Retegi. Gazteetan Goñi gogor dator, baina burua asentatu beharra dauka oraindik.



# ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A



Bularra eta azala  
mintzen duten ziriak



Haragia bularretakoan  
alboetan



Tirante erriak edo  
azala estutzen  
dutenak



Bizkar desitxuratuak



Bularretakoan azpitik  
urtetzen diren  
bularrak



Bular erriak



*Honen konponbidea  
ORTO-LAGUNen daukazu*

*Hemendik aurrera  
bularretakoak neurrira!*



Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



## AUTOCARES LA ENCINA

LANTEGI, ESKOLA, TXANGO, NAZIO BIDAIK  
ETA NAZIOARTEKO ZERBITZUAK  
2 SOLAIRUDUN AUTOBUSAK  
AUTOBUS-LITERA  
MIKROBUSAK  
7 LAGUNENDA KO TAXIAK

Landalucia, 24  
01015 VITORIA-GASTEIZ  
Tel.: 945 29 04 70  
Mug.: 639 72 49 22  
Faxa: 945 29 08 46  
Etxekoa: 945 23 11 60





## Tximista kuadrilla

ximista kuadrilak mondrauetar batzuekin apostua egin zuen baietz irabazi, eta 1970ean futbol partida aurretik eginiko argazkia dugu hau. Galtzen joan baziren ere momentu batzuetan, azkenean irabaztea lortu zuten. Dena, ordea, ez zen alaia izan, argazki honetan pozik eta irribartsu azaltzen den Xabier Zubizarretak eskua apurtu baitzuen bertan.

Partida hau jokatu zutenean 22-25 urte inguru izango zituzten eta jadanik futbola piska bat utzita zeukaten; gazteagoak zirenean, ordea, hainbat txapelketatan parte hartutakoak ziren. Beharbada batek baino gehiagok gogoratuko du Tximista-Txus finala (Txus taldean gero Realean ibilitako Jabier Elkorok jolasten baitzuen), baita irabazi ere argazkiko kuadrila honek. Begi bistakoa da, ordea, talde honetan oso jokalari onak zeudela, jubenil mailan eta UDAko ekipo nagusian jokaturakoak, Jesus Mari Arrese esaterako.

Goian ezkerretik hasita: **Jose Ramon Quintanilla, Luis Mari Otxoa, Xabier Zubizarreta, Jose Ramon Arenaza, Carlos Gutierrez, Jesus Mari Arrese, Pedro Jose Urcelay.**

Behean ezkerretik hasita: **Luis Mari Aginagalde, Jose Luis Gutierrez, Jose Manuel Gabilondo, Jesus Iturbe, Jesus Martinez.**

Argazkia eta informazioa: Luis Mari Otxoa

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**Etxabe**  
**harategia**

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57



## LANA

◆ **Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea** behar dira jatetxe baterako. Tfnoa: 945 44 50 86.

◆ **Esperientziadun neska bat ileapaindegian lan** egiteko prest. Tfnoa: 943 79 72 77

◆ **Matematika, fisika, kimika eta marrazketako klaseak ematen** dira Arrasateko San Andres auzoan. Tfnoa: 943 77 08 02

◆ **Aretxabaletan 2. LOGSEko (giza-zientziak) matematikako klaseak hartuko** lirateke. Tfnoa: 943 79 23 77

◆ **Esperientzia eta infromedun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak** egiteko prest. Orduetgia goizeko 11etatik 3etara eta arratsaldeko 8etatik 10-etara. Tfnoa: 608 97 49 72 (Rosa)

◆ **Esperientziadun neska sukalde laguntzaile** bezala edo taberna nahiz jangelako **zerbitzari** gisa lan egiteko prest. Interesatuak 943 79 73 42 telefono zenbakira deitu.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Zuzendaritzako idazkaria.**  
Bilbo. Erref. 16507/3

**Igeltserotza irakaslea.** Audio.  
Erref. 16346/4

**Informatika teknikaria.**



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**

Zamudio. Erref. 16669/3

**Garraioen komertziala.**  
Bidasoa. Erref. 16485/1

**Instalatazaila elektrikoa.**  
Urretxu. Erref. 16466/2

◆ **Lan eskaintza publikoak**

**Aretxabaletako Udala: Liburuzain laguntzailea.**  
Titulazioa: BBBedo baliokidea, 3.HE baliokidea.  
Oinarriak: GAO 99/1/5.

## DENETARIK

◆ **Aretxabaletan taberna alokagai.** Tfnoa: 943 79 01 47 (Jose).

◆ **Aretxabaletan logelak alokatzen** dira sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu 943 79 05 26 telefono zenbakira.

◆ **Bugno bizikleta bat salgai dago.** Tfnoa: 943 77 00 95 (Jon)

## ETXE BIZITZA

◆ **Pisu bat alokatu nahi da** Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 80 41.

◆ **Aretxabaleta edo Arrasaten pisua behar da alokatzeko.** Tfnoa: 943 71 20 72 (Josune edo Carmen).

◆ **108 m<sup>2</sup>tuko lokal komertziala** salgai Aretxabaletako Araba Ibilbidea 36an. Interesatuak 943 79 26 75 telefono zenbakira deitu.

## LEHIAKETAK

◆ **HIES Ekimena** taldeak "HIES" a edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa antolatu du. Bi kategoria izango dira: 15-18 urte bitartekoentzat lehena eta 19 urtetik gorakoentzat bigarrena. Lanak entregatzeko epea martxoaren lehen bukatuko da. Argibideak 943 76 26 99 telefono zenbakian.



• BILTEGI HOZKAILUA  
• HARAGI PRODUKTOAK  
• INDIOILARRA ZATITUTA  
• UNTXIAK  
• TXERRIKIAK  
• IZOZTUAK  
• BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxe: 943 79 34 28

**CONSUM EROSKI**

*Orain arraindegi eta okindegiak, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA



# Sarituak



Urrun geratu zaizkigu aratusteak. Hotz pixkat pasatu behar izan genuen, baina tira, azkenean ez zen horrenbesteraino izan. Dantza apur bat egin orduko, barrua berotuta! Dena dela, kanpoan fresko-freskotan egon zena mariskoa izan zen. Azkenean 1253a izan zen zenbaki saritua eta **Domaika**, berriz, zorteduna. Ederra egon behar zuen.

Beste zortedun batzuk ere badira herrian, eta aipatu beharreko sari hau ere erregalu bikaina dugu. Aurreko batean ezustean harrapatu gintuen telebistak, BBVko zozketan **Mari Jose Caamaño**ri Volvo kotxea tokatu zitzaionean. Niri ere tokatuko balitzait...

Bestalde, onddo izugarri batek ezustean harrapatu zituenak, **Francisco Lanzos "Pitxi"** eta honen lagun batzuk izan ziren. Aurreko batean Arabako Arriola herri inguruan 2 kilo pasatxo zituen

onddoa jaso zuten. Jakin izan dugunez, pinu pare bat bota behar izan zuten berau jasotzeko. A ze komeriak onddo bat hartzeko, baina itxura denez, merezi izan zuen. Jateko balio badu behintzat... sabela ondo bete behar dute oraingoan.

Batzuk perretxikotan eta beste batzuk musean dira trebe. Batzokian elkarte arteko mus txapelketa ospatu zen zapatuan eta irabazleak Hiba Gain elkarteko **Modesto eta Landa** izan ziren; bigarrenak, Muru Alde elkarteko **Urtubi eta Etxebarriarteun**. Guztiak ere bikain aritu ziren.

Txapelketa eta lehiaketekin jarraituz, etxekoek, hau da, Aretxagazetakoek ere lehiaketa bat antolatu zuten gabon inguruan, erreportaia lehiaketa hain zuzen. Egia esan, ez du arrakasta haundirik izan, erreportai bat bera ere ez baita aurkeztu. Gaur egun partehartzea ez ei dago oso modan. Bizitzako beste arlo askotan ere nabari da hori, kulturean, elkartean...

Bukatzeko, Aretxagazetara heldu den eskutitz batek harrিতuta utzi nau. **Santa ageda mutilak** nirekin haserre? Jakin ezazue nire atal honetan atxabaltar ugariren komentarioak baino ez direla ateratzen eta azken hauek kuadrilan, ileapaindegian, lantokian... bazter guztietan entzuten ziren. Norbait haserre egotekotan neu egon beharko nintzateke, izan ere dantza eta txokolatea hain gustokoak izanik, azken urteotako santa ageda mutilak ez bainaute behin ere gonbidatu, en fin...

## Liburutegiko txokoa



### Gilbortzio eta argaltzio

Enric Lluch

Marraskilaria, Agustí Asensio

Itzultzailea, Nerea Atxega

Elkar, 1997

(Xaguxar; 79)

**G**ilbortzio erregearen lurraldea ugarilandia da eta denak dira potoloak. Argaltzio, berriz, Mehelandiako errege da eta bertan ez dute zer janik, horregatik oso argal daude. Gilbortziok ezin du bere gelatik atera atetik pasatzen ez delako eta argaltziok, berriz, harriak sartu beharra dauka poltsikoetan haizeak ez eramateko. Biak ere nazkatuta daude egoera honekin eta batek argaldu egin nahi duen bitartean besteak gisendu egin nahi du.

Enrich Lluch-ek valentzieraz idatzitako liburu hau dibertigarria da oso eta ziur barre ugari egingo duzuela istorio eder hau irakurtzean. 10 urtetik aurrerako haurrek irakurtzeko moduko liburua duzue honako hau eta Agustí Asensio-ren marrazkiak ere testua bezain barregarriak dira.

Joseba Lopez de Armentia



# OTSAILA

## 27

zapatua

### GESALIBARRERA MENDI IRTEERA

Zaraia Mendizale Taldeak aste honetako irteera Gesalibar eta Arlabanera egingo du.

# MARTXOA

## 1

astelehena

### BASOTXOKO PATROIA

Aingeru Guarda Basotxoko patroia dela eta, Basotxoko bazkideek meza izango dute eguerdiko 1etan. Ondoren bazkaria eta Quintanillaren eskutik dantzaldia izango dira. Prezioa 2.300 pta.

# 4

eguna

### HITZALDIA ALMENEN

Almen ikastolak hitzaldia antolatu du Unai Martinezen eskutik, gaia "Lanaren kultura aldaketa: bere eragina lan merkatuan" delarik. Arratsaldeko 6etan izango da eta edonorentzat zabalik egon arren, batez ere DBHko 2. zikloan edota Batxilergoan seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzendua.

# 5

egukotxa

### LABURMETRAIEN GAUA

Korrika kulturalaren barruan laburmetraien gaua izango da gaueko 10,30etan udaletxe zaharreen. Bertan botako diren laburmetraiak Jon Anduezaeren "Bernar" eta "Laugarren galeriatik" eta "Txotx" izango dira. Sarrea 300 pta.

# 6-7

### ESKI IRTEERA

Murruxiko elkarteak eski eta trabesia irteera antolatu du martxoaren 6 eta 7rako La Mongie eta Tulón-era. Trabesia eta pista egin ahal izango dira. Biak egin nahi izanez gero, prezioa 6.500 pta. da eta ikasleentzat 5.500 pta. Pista egin nahi izanez gero, ikasle eta bazkideek 8.500 pta ordaindu beharko dute, bazkideek 9.500 pta eta gainontzekoek 10.500 pta. Domekan Gavarnien eskiatuko da. Lo Soulon hotelean lo egingo da eta prezioan sartzen dira afaria eta gosaria ere. Irteera goizeko 4etan izango da plazatik.

# 7

domeka

### ABELAZLE ELKARTEAREN OHIKO BILKURA

Abelazlek, Deba Garaiko abeltzainen elkarteak, ohiko bilkura orokorrerako deialdia luzatzen du. Arrasateko udaletxean izango da, goizeko 11,30etan lehenengo deialdia eta 12etan bigarrena.

**"ARINSA"**

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa "EO-10"

Tfnoa: 943 79 62 80

ARETXABALETA

**M**obiliario  
**ARENZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

*Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**ITURGINTZA**

**J.J**

Jose Jabier Irure

**URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87



10

## IKASTARROAK

eguaztena

## HITZALDIA ALMENEN

Almen ikastolak hitzaldia antolatu du Miguel Ayerbe hizlariaren eskutik, gaia "Zer ikasi? Aukeraketak planteiatzen dituen arazoaren aurrean nola jokatu?" delarik. Arratsaldeko betan izango da.

## AISIALDIKO ZUZENDARI IKASTAROA

Arrasateko Txatxilipurdi taldeak antolatuta aisialdiko zuzendari ikastaroa. Iraupena 100 ordu eta matrikulatzeko epea otsailak 26an bukatuko da. Informazio gehiago 943 79 54 46 telefono zenbakira deituz.

## GIMNASIA TERAPEUTIKOA

Lordosis, cifosis, eskoliosis, lumbagia... erako patologia bat duten pertsonentzat zuzenduta dago. Gimnasia saio honetan parte hartu ahal izateko mediku txostena izan behar da eta urtean zehar partaide bakoitzaren mediku kontrolak egingo dira. Astearte eta ostegunetan emango da 10:15etatik 11:15ra. Aretxabaletako Kiroletxean. Prezioa abonatuentzat 2.600 pta.koa da eta 3.400 gainontzekoentzat.




BEHARREZKO TELEFONOAK

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Astean bi egunetan Atxabalta telebista



Otsailaren 12an lanean hasi zirenean astean hiru egunetan etxeetara hurbiltzeko asmoa bazuten ere, momentuz gehiegitxo izango dela ikusi da eta ahalik eta zerbitzu ona eskeintzeko, martizen eta eguakotxetan bakarrik izango dira telebistako emisioak.

Pasa den astean, berriz, arazo teknikoak izan ziren emisioa eguakotxean bakarrik izatearen errudun. Pazientzia eskatzen zaie herritarrei martxan jarri eta funtzionamenduan hasi artean behintzat. Denok dakigu hasierak gogorrak izaten direla eta hemen ez da gutxiago. Lagundu nahi duten guztientzat, berriz, atek zabalik daude.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30	 Amagoia Lasagabaster	ATXABALTA EZAGUTZEN

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11


## Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15





Berrogei urtetik gora egingo zituen ilemozten Felix Madinabeitiak. Koruetan Txominenean ikasi zituen ilea mozteko sekretu eta teknikak. Ondoren kalean jarraitu behar izan zuten ofizioa, Durana kalean jarri zuten ileapaindegian.

Gaur egun bertan jarraitzen du Felixek, baina orain berak bakarrik.

• Nortzuk joaten ziren Koruetako bizartegira?

Inguruko baserritarrak joaten ziren, baina gero kaleko jendea ere joaten hasi zen.

• Nola hasi zinen ilemoztegia?

Lana gustatu egiten zitzaidan eta horregatik hasi nintzen. Lan hau

## “Ileapandegiko lana gustatu eta era berean sentitu egin behar da”

gustokoa izan behar da eta era berean sentitu.

• Zuri nork mozten dizu ilea?

Alabak, lehen Txominek mozten zidan.

• Ilea mozteko artaziak ala makina?

Artaziak eta labana.

• Neskak ile luzeaz ala motzaz?

Politak direnak edozein modutan daude guapa.

• Etxekoei zuk mozten diezu ilea?

Bai.

• Inoiz ile luzea izan duzu?

Bai, Beatles-en garaian.

• Hilberan igarten da jende gehiago ileapaindegian?

Bai.

• Eta zuk zeuk hilberan mozten duzu?

Ez diot kasurik egiten, ez dut ile arazorik eta.

• Nondik dator zure gaitzizena?

Nire aitari ere hala esaten zioten eta baita semeari ere.

• Zer du Arientzak kaleak ez duena?

Lasaitasuna.

• Zein da Arientzako baserririk

politena?

Ardantza, harmarri ederra dauka etxearen aurrealdean.

• Non ezagutu zenuen emaztea?

Aretxabaletan.

• Etorriko zinake kalera bizitzera?

Ez, derrigorrez izango ez balitz ez.

• Bertsolariak gustatzen zaizkizu?

Bai, asko.

• Bertsolari bat?

Lizaso.

• Ilemoztailea izan ez bazina, zer izatea gustatuko litzaizuke?

Harotza.

• Aurten Errealak Athletic-ak baino hobeto bukatuko duela entzun da...

Ez dut uste, hiru punturen gorabeheran ibiliko dira, baina Athletic gainetik.

• Desio bat.

Osasun ona izatea.

• Txakurrak kalean lotuta ala sulto?

Batzuk lotuta ibili beharko lirateke.

• Obrak direla eta, noiz aldatuko zara lekuz?

Martxoaren hasiera aldera izango dela esan didate, Durana 5 zenbakira joango naiz, urte eta erdirako edo.

## KOMIKIA

### BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arriabe

Aretxagazeta



# TABERNA eta JATETXEEN GIDA

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Express akeitegia

**Express  
akeitegia**  
*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43

## Gurea taberna

**Jatetxea eta  
taberna**

**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Arlutz taberna

**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • 943 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
*• Puntua espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Mendiola erretegia

**ESKORIATZA**

Tfno 714345



◆ *Bazkari  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
© 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea



Azatza auzoa ◆ Tfnoa: 943 79 16 68

## Amets taberna

**AMETS**

**Taberna eta kafetegia**  
Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

**Josu harategia**

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA



# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELETAN  
maisua**

**Zapata  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.

Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

**ARRASATE**